



OPARIEN PROTOKOLOA

EDUKIA

1	SARRERA	1
	1.1 Aplikazio-esparru objektiboa	1
	1.2 Aplikazio-esparru subjektiboa	1
2	ARAU OROKORRA: OPARIAK ONARTZEKO ETA/EDO EGITEKO DEBEKUA.	
	SALBUESPENAK	2
3	PROTOKOLOAREN INTERPRETAZIO MURRIZTAILEA	3
4	ERREGALUAK ETA OPARIAK AUSAK BABESTUTAKO EKITALDIETAN	3
5	OPARIEN ERREGISTROA	4
6	JAKINARAZPENA ETA SALAKETA. EZ BETETZEAGATIKO ERANTZUKIZUNA.....	4
7	EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA.....	4
8	DIZIPLINA- ETA ZEHAPEN-ARAUBIDEA.....	5
9	INFORMAZIOA GORDETZEA	5
10	PROTOKOLOA INDARREAN JARTZEA ETA INDARREAN EGOTEA.....	5

1 SARRERA

1.1 Aplikazio-esparru objektiboa

Oparien Protokolo honen (aurrerantzean, "**Protokoloa**" ere bai) helburua da AGUAS DEL AÑARBE – AÑARBEKO URAK SAREN barruan (aurrerantzean, "**AUSA**") opariak edo bestelako ordainsariak egiteari eta/edo onartzeari dagokionez jarduteko irizpidea ezartzea.

Horren helburua da bermatzea AUSAn hartutako erabaki profesional eta/edo komertzial oro inpartzialtasun eta neutraltasun osoz egiten dela beti bere jardueraren garapenean, balizko interes-gatazkarik egon gabe, eta erabaki hori bikaintasun-irizpide zorrotzen eta kalitatearen etengabeko bilaketaren arabera soilik hartuz.

Zehazki, protokolo honek arautzen du nola jokatu behar den AUSAtik kanpo dauden hirugarrenei edozein motatako opariak egiteko eta haiengandik onartzeko, batez ere —eta beste batzuei kalterik egin gabe— enpresa, bezero, hornitzaile edo administrazio publiko batzuei, baita AUSAREN jardueran eragin nabarmena izan dezakeen beste edozein interes-talderi ere, baldin eta haien ekintzek eragina izan badezakete AUSAK bere jarduera arrakastaz garatzeko duen gaitasunean.

1.2 Aplikazio-esparru subjektiboa

Protokolo hau AUSAKO kide guztiei aplikatu ahal izango zaie, kontratu-modalitatea, harekin lotzen duen posizio hierarkikoa edo funtzionala edozein dela ere; bereziki, Batzordeko kideak, Administrazio Kontseiluko kideak, Zuzendaritzakoak eta Saitetako arduradunak (hemendik aurrera, horietako batez hitz egitean "**Profesionala**" deituko zaio, eta modu bateratuan, "**Profesionalak**"). Era berean, onuradun edo hirugarren gisa AUSAREKIN harremanak dituzten sozietate kontratistek eta azpikontratistek ere aplika dakieke.

Horiek nahitaez bete behar dituzte AUSAN indarrean dauden arauak eta protokoloak, eta, batez ere, lruzuraren aurkako Sistema eta hori osatzen dituzten dokumentuak, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak —SEEPen eta Zigor Kodearen kudeaketa-sistema taxutzen duenak— aipatzen duen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duena betez; horrela, uneoro portaera etiko, oso eta gardena izan beharko dute.

Protokoloa profesional guztientzat eta agintarientzat egongo da eskuragarri, eta bete beharreko espedienteetan esku-hartzeren bat duen hirugarren orori jakinaraziko zaio, onuradun gisa edo beste izaera batekin. Hirugarren horiek guztiek konpromisoa hartu beharko dute politika hori betetzeko.

Horrez gain, Protokolo honen edukia Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak ere aplikatzen zaie:

- a) *Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.*

- b) *Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.*
- c) *Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.*
- d) *Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.*
- e) *Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.*

Zirkunstantzia horiek, hala badagokio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduan, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoan, jasotako aurreikuspenekin bat etorritik interpretatuko dira.

Protokolo hau profesional guztiei jakinaraziko zaie eta hauen eskura egongo da, baita AUSAn behar bezala ezarritako Iruzurraren aurkako Sistemari buruzko beste dokumentu batzuk Profesional guztiei jakinaraziko zaie, euren arteko harremanaren izaerak hala eskatzen duenean; profesional horiek plana betetzeko konpromisoa hartu beharko dute.

Horrez gain, Protokolo honen edukia deskribatutako subjektuei lotutako pertsoneri ere aplikatzen zaie, eta, bereziki, adibide gisa, familia-lotura hau dutenei: bigarren mailara arteko ahaidetasuna, odol-ahaidetasunagatik edo ezkontza-ahaidetasunagatik (aurrekoak, ondorengoak, anai-arrebak edo ezkontideak edo horiekin antzeko lotura duen pertsona, horietako edozein).

Era berean, AUSAk konpromisoa hartzen du Protokolo honetan araututako jarraibide eta printzipioek merkatuko beste eragile batzuekin dituen merkataritza- edo lan-harreman guztiak arautzeko, hala nola hornitzaileekin, laguntzaileekin, kontratistekin edo hark kontrolik ez duen enpresa partaidetuekin.

2 ARAU OROKORRA: OPARIAK ONARTZEKO ETA/EDO EGITEKO DEBEKUA. SALBUESPENAK

Arau orokor gisa, interes-gatazka, bateraezintasun edo ustelkeria mota oro saihesteko, profesional batek ere ezin izango du AUSAtik kanpoko hirugarrenengandik oparirik onartu, ez egin, ezta ordainsaririk eskaini edo onartu ere, baldin eta AUSAk harreman profesionalak eta/edo komertzialak baditu hirugarren horiekin.

Aurrekoa gorabehera, edozein motatako opariak edo ordainsariak onartzeko eta/edo egiteko debekua salbuespen gisa, aukera hauek ezartzen dira: (i) gutxieneko balioa, balio sinbolikoa edo sustapenekoa duten opariak egitekoa eta/edo unean-unean onartzekoa; (ii) herrialde bakoitzeko legeriak eta bere kulturaren printzipio etikoek baimendutakoak; (iii) gizarte-usadioen barruan ohikotzat jo daitezkeenak, edo kortesiazkoak, oparia jasotzen edo ematen duen pertsonak betetzen duen postu zehatza ere kontuan hartuta; eta (iv) AUSAren irudia kaltetzen ez dutenak.

Edozein profesionalak egin eta/edo jaso dezakeen erregalu, opari edo abegi oro dagokion lanpostura bidali eta/edo bertan jaso beharko da, inoiz ere ez norberaren bizilekuan.

3 PROTOKOLOAREN INTERPRETAZIO MURRIZTAILEA

Zalantzarik izanez gero, Protokolo hau zentzu murriztailean interpretatu beharko da erregalua, oparia edo abegia egitean eta/edo jasotzean, betiere kontuan hartuta inola ere ezingo dela jaso edo eman:

- Eskudiruzko oparirik, opari-txartelik edo txekerik.
- Opariaren hartzaile edo igorle den profesionalaren lanarekin eta/edo hirugarrenaren lan profesionalarekin lotuta ez dagoen ezein opari.
- Izaeragatik, zenbatekoagatik edo beste edozein zirkunstantziagatik profesionalaren independentziari, jardun zuzenari eta saiakera egokiari eragin diezaiokeen oparirik, eta/edo opariaren hirugarren jasotzailearen edo jaulkitzailearen lan profesionalari eragin diezaiokeenik.
- Profesionalak inolako interes-gatazkarik, bateraezintasunik, funtzionario-eroskeriarik, influentzia-trafikorik edo jarduera ustelik izatea eragiten duen oparirik.

Protokolo honetan aurreikusitakoaren arabera bidegabea izan daitekeen edozein opari jasotzen duenak opari hori itzuli egin beharko du, eta itzulketa hori egin duela idatziz jaso beharko du, eta Betetze Batzordeari idatziz jakinarazi beharko dio. Idatzi hori Betetze Batzordeak artxibatuko du.

Hala ere, zirkunstantziek eragotzi egiten badute opari horiek itzultzea, itzulketa egiteko arrazoi objektiboengatik, arrazoi instituzionalengatik, sinbolikoengatik edo protokoloengatik, kultura bezalako beste arrazoiengatik, eta abar, Betetze Batzordearen onarpena eta baimena erregistratuko dira, eta Batzordeari emango zaizkio irabazi-asmorik gabeko erakunde bati dohaintzan eman ditzan.

4 ERREGALUAK ETA OPARIAK AUSAK BABESTUTAKO EKITALDIETAN

Betetze Batzordeari AUSAk babestu nahi duen edozein jarduera edo ekitaldiren berri eman beharko zaio, baita babestutako ekitaldian edo jardueran eman beharreko sustapen- edo kortesia-oparien berri ere.

Betetze Batzordeak, ekitaldiaren edo jardueraren berri izan ondoren, irizpena emango du sustapen-jarduera edo babestu beharreko ekitaldia sustatzen duen organoaren eskaera baimentzeko edo atzera botatzeko.

Betetze Batzordeak sustapen- edo kortesia-oparia entregatzeko baimena ematen badu, oparia ekitaldian bertan entregatu beharko da, modu publikoan eta orokorrean. Bestela, oparia hartzaileak bere zerbitzu profesionalak ematen dituen helbidera bidali beharko da.

Nolanahi ere, debekatuta dago eskudirua eskaintzea, hitzmatea edo ematea, horren zenbatekoa edozein dela ere.

5 OPARIEN ERREGISTROA

Nolanahi ere, erregaluei eta opariei buruzko ohiko praktikak behar bezala monitorizatu, ebaluatu eta erregistratu behar ditu AUSAko Betetze Batzordeak. Horretarako, oparien erregistro bat sortu da.

Betetze Batzordea izango da erregistroa eraman eta eguneratzeaz —beharrezkoa denean— arduratuko den organoa.

Erregistroak datu hauek izan beharko ditu:

- Eskaintza eta/edo onarpena zein egunetan egin zen.
- Jarduketa (oparia egitea/jasotzea).
- Opariaren deskribapena.
- Gutxi gorabeherako balorazio ekonomikoa.
- Oparia jasotzeko/harremanetan jartzeko lekua.
- Opariaren igorlea.
- Opariaren hartzailea.
- Betetze Batzordearen jarduketa.

6 JAKINARAZPENA ETA SALAKETA. EZ BETETZEAGATIKO ERANTZUKIZUNA

Protokolo honen aplikazioari buruzko edozein zalantza hierarkian gainerik dagoenari eta/edo Betetze Batzordeari zuzendu beharko zaio. Fede oneko informatzaileak errepresaliarik jasango ez duela bermatzen da, betiere haren konfidentziasuna bermatuz.

Era berean, Salaketen Kanala erabili beharko da, Protokolo honetan, Kode Etikoan edo AUSAn finkatutako beste edozein prozeduratan ezarritakoa ez dela betetzen susmatzen bada.

Politika honetan adierazitakoa urratzen duen jardueraren bat egin dela susmatzen bada, HFP Aginduan xedatutakoaren arabera, jarduera hori gertatzen ari den edozein prozedura berehala etengo da. Kasu horretan, egoera hori ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie agintari interesdunei eta jarduketak egiten parte hartzen duten erakundeei. Era berean, horren eraginpean egon daitezkeen proiektu, azpiproiektu edo ekintza-ildo guztiak berrikusiko dira, eta, hala badagokio, gertakariak agintari publiko eskudunei salatuko zaizkie. Horrez gain, informazio erreserbatu bat hasiko da erantzukizunak argitzeko edo diziiplina-espeditente bat hasteko.

Era berean, gertakariak Fiskaltzaren aurrean salatu beharko dira, hala dagokionean.

7 EGUNERATZEA ETA HOBEKUNTZA

Protokoloa urtero berrikusiko du Betetze Batzordeak, eta, nolahi ere, plana eguneratzea edo aldatzea dakarren arau-aldaketaren bat gertatzen denean.

Protokoloa AUSAren komunikabide arrunten bidez argitaratuko da, profesionalak, negozio-bazkideek eta alderdi interesdunek osorik ezagutu dezaten.

8 DIZIPLINA- ETA ZEHAPEN-ARAUBIDEA

Nolahi ere, protokolo honetako xedapenak edo protokoloa garatzen edo osatzen dutenak betetzen ez badira, diziplina-zehapenak ezarri ahal izango dira, estatutu-araubidearekin, hitzarmen kolektiboarekin, lan-legeriarekin eta profesionalak hartutako gainerako betebeharrak zibil eta merkataritzakoekin bat etorritik.

Delitu diren arau-hausteen kasuan, AUSAk agintari eskudunen aurrean salatuko du jokabide hori.

Bezereen, hornitzaileen, onuradunen eta kanpoko laguntzaileen ez-betetzeak hautematen badira, dauden kontratu-harremanak amaitzeko mekanismoak aktibatuko dira.

9 INFORMAZIOA GORDETZEA

Betetze Batzordeak artxibatuta gordeko du kontsultei, oparien itzulketei eta/edo AUSAko profesionalak ezarritako zehapenei buruzko informazioa, protokolo hau aplikatuz.

Informazio hori hamar (10) urtez gordeko da, eta konfidentzialtasuna gordeko da une oro, hala dagokionean.

10 PROTOKOLOA INDARREAN JARTZEA ETA INDARREAN EGOTEA

AGUAS DEL AÑARBE- AÑARBEKO URAK SAREN Administrazio Kontseiluak 2023ko uztailaren 28an onartu zuen Protokolo hau, eta berehala sartu zen indarrean, eta indarrean dago harik eta aldaketarik egin arte.